

# Nina Simone guztiak

## THE AMAZING NINA SIMONE

Dock of the Bay Donostiako Musika Dokumentalen Nazioarteko Jaialdiaren 9. edizioan (urtarrilaren 9tik 16ra) ikusia.



Miren Manias  
@beavis

Musikaz harago, Nina Simone (AEB, 1933 – 2003, Frantzia) abeslari eta piano jotzailea ezagutzeko aukera eskaintzen duen dokumentala da *The Amazing Nina Simone* (2015). Jeff L. Lieberman (New York, 1947) zinemagile estatubatuarrek zuzendutako lana da.

Liebermanen honako pieza, musikariaren gaineko lan biografikoa da. Eunice Kathleen Waymon-ek (jatorrizko izena) sortutako musikari eta osatutako kantuen hitzei azalpena eranstean dien ikus-entzunezkoa, alegia. AEBetako arrazakeria eta esklabotza salatzen, eskubide zibilak aldarrikatzeko, bai eta barruan zeramatzen mamu pertsonalak uxatzeko, musika erabili zuen emakume indartsua eta aldi berean hauskorra izan zen Simone. Lan honek errepasso zintzoa egiten dio haren bizitzari, inguruan izan zituen hainbat lagun eta senideren adierazpenen bitartez, pertsonaiaren hastapenetatik beheraldi pertsonaleraino.

Nork ez ditu ezagutzen haren *My Baby Just Cares for Me*, *I Put A Spell on You* edo



*I Love You, Porgy* kantuek? Ordea, gutxitan erreparatzen zaio kantuen sortze prozesuari eta berau bultzatzen duten faktoreei. Hau da, sortzailearen bizipen pertsonalei, haren egoera emozionalari edota ideologiari. Horregatik, halako dokumentalek aukera eskaintzen dute sartzeko pertsonaiaren barrenean eta ulertzeko sorkuntza horren jatorria, bai eta hark gordetako isiltasuna ere. Simonek txikitatik nahi izan zuen piano jotzaile klasikoa bilakatu eta musika erabili pairatutako arrazakeri ekin tzak salatzen. Dokumentalean dioenez, beltz koloreko azala izate hutsagatik ukatu egin zieten haren gurasoei alabaren errezitaldi batean lehenengo ilaran jesartzeko aukera. Areago, pasarte horrek betiko markatuko zuen Simoneren nortasun konplikatu.

Industria munduan ezagunak ziren haren etengabeko umore aldaketak eta jende askok aitortu zuen hari izandako beldurra: *“She is a bit moody”*. Bere anaia Sam Waymon-ek azaltzen due-

nez, askotariko nortasunak biltzen zituena emakumea izan zen. Musikariaren neskalagun izandako Marie-Christine Dunham Pratt-ek, bestetik, dio ez zegoela pertsonarik munduan denbora luzez haren aldamenean iraungo zukeenik: *“Energia gehiegi zuen Ninak”*. Simonek bere burua akatsez beteaz aurkezten zuen eta erantsi bere erronka nagusia zela jainkoak emandako talentu berezi hori maneiatzea. Beharbada, etsai bilakatu zitzaion doaia.

Ezkondu eta alaba bat izateak ez zion ustezko zorientasuna ekarri. Askotan publikokoi adierazi zuen zoriontsuago izan zitekeela eta gertukoekin mintzatu bere buruaz beste egiteaz. Zorritzarrez, itxurazko izaera indartsu horren azpian hauskortasunak agindu eta gaixotasun mentala garatu zuen azken urteetan.

Dokumentalak erritmo aldetik une ahulak baditu ere, Simoneren zoritxarreko bizipenek harrapatuta, gozagarria da artistaren nortasun guztietara hurbiltzea. ■